

## Berba jolasaren dantzan

Doinua: Norteko trenari

**1**

Lehengo mendean lurrak emanik  
laurogeita zortzi bira,  
mundu barri bat agertu jaten  
bizitzaren bide erdira.  
Hantxe ezetu nendun jenteak  
sortu eustan ikusmira,  
hareen artean izar txiki bat,  
hari zerion distira!

**2**

Gimnasiotik etorri eta  
tragoa gin featerrari,  
parrapla batzuk ta segituan  
bertso-eskolara kantari.  
Ardau, txorizo ta pernilagaz  
lagunduta ahotsari,  
ikastolako oholtzan zu zinen  
gure artzain ta gidari.

**3**

A ze eskola eder polita,  
a ze giro atsegina!  
A ze eskola martitzenetan  
laster ohitura egina!  
Jakintasuna zerizun eta  
umore natural fina,  
handik aurrera han alkartzeko  
egin nendun ahalegina.

**4**

Bertso-saioak eta afariak  
gaur egun hamaika dira,  
sasoi haretan ez ziren gitxi  
ta guk joateko desira.  
Zugaz batera prestu genbiltzan,  
hitzordutik ezin libra,  
mendi puntako herrira bere  
helden zan Opel Calibra.

**5**


Gazteak eta berdeak ginen,  
kalean hamaika azaina:  
Swans-etik bota ta eskaileretan  
bertso-saio bat bikaina,  
enbor gainean kantari ta zeu  
talde erdian artzaina  
ta kargu hartzen etorri jakun  
emakume udaltzaina.

**6**

Bizibidean aurrera goaz  
itsasontzien antzera  
eta urteokaz kapitain legez  
zu marinelon aldera.  
Gure maisuak zer esan eta  
gu haxe joan egitera,  
gure eskifaia gidatu zendun  
bidetik portu onera.

**7**

Abisa barik joan zara, Trino;  
non zabilta ta nongo saltsan?  
Zeure eskolan ondo ikisita  
oraindino gabiltza martxan.  
Egun handirik egongo ete dan  
nagoen arren zalantzan,  
zugaz batuko ahal gara inoz  
berba jolasaren dantzan.



## SANTIAU ETA SANTANA

1

Santiau pasau de ta  
santana geubian  
mutil bi egon sasen  
morena  
bentana batian.

2

Mutilok egon sasen  
guzurre kontetan  
aitxitxe koitxedue  
morena  
taluak erretan.

3

Amama koitxedia  
gortatik negarrez  
katu demolinoa  
morena  
taloa dandarrez.

4

Masuzte koloreko  
begitxu baltzokaz  
ondo engaina in nona  
morena  
berba labanokaz.

5

Harako zeuk gure ta  
neuk gure nendunian  
Berba labanik asko  
morena  
zendula minian.

6

Zeuk bere joxepa ta  
neu bere joxe ba  
ontxe konta biarkuz morena  
hamalau pezeta.

## LAU LETRATXO

Lau letratxo elkarren ondoan  
akronimoa da, brabo!  
Eta atzean bertso eskola bat...  
barkatu, askoz gehiago!  
A, L, B eta ondoan E,  
ALBE lez ezagunago,  
Trinok ta Andonik sortu zutena  
gaur baino askoz lehenago.  
Laurogeian sortu zuten eta  
ez ote dugu arraro  
hainbeste urte iraun izana  
bertsogintzaren abaro?  
Sekretutxo bat badauka, baina,  
irauteak aroz aro:  
**ALBEn ahotsak ugari daude  
bihotza bakarra dago!!!**